

ADABAKIAK

A. OLABIDE'REN ITUN ZAR ETA BERRIA.—Azken zenbakian EGAN-eko lankide batek itzulpen onezaz esan zuena dela-ta, zenbait erantzun eta iritzi jaso ditugu. Ona aurrenik Ormaetxea jaunak idatzi diguna:

OLABIDE, BAI. *L. Mitxelena iaunari*.—EGAN'en Olabide'rengaz eman duzun iritzia (1-4-1959) aski polita arkitzen dut erabat, edo oro har. Ala ere min pixka bat eman digu Olabidetarrori, iritzi ortan on baiño gaizto dana nabarbentzenago dalako.

“*Euskera experimental*”.—Orren ere bearra ba-daukagu, eta ori gogozago irakurriko du erri ikasiak, gu beste guziok gaitun baiño. Beste zenbait erritan ere ori berori gertatu da, eta gureak ere naiago du ein bateko garbitasuna, oraingo mordoilokeri oriek baiño. Ikus zer esan zion A. Ledochowski'k, iesuita guzien Buru izan zanak, gure A. Olabide'ri: “Euskera Akademikuan ari omen zira; io zazu ortik, ori irakurriko baitute geienik, azkenean, nere erri Polonia'n gertatu dana.

Baiña nork, Olabidetar amorratua ba'da ere, nork goraintziko dio erri xumeari Itun Berria edo Zârra irakur dezan? Euskera ori ez da erri xumearentzat egiña. Eta zein apaizi gogoak emanen dio liburu oriek dauden bezala arratzaldetik (kulpitutik) irakurtea? Ala ere, gure apaizak aunitz baliatu dira, ta baliatuko, Iainkoa lagun, euskerazko Biblia ortaz.

Zuk egozten ditiozun gauza asko etziran aterako orrela, liburugai ori gure eskuetatik igaran ba'liza. Zanaren azkeneko ala-naia betetzen utzi ba'lizaigu, oriek eta beste asko ere etziran agertuko. Emango al zaigu aukera noizbait gauza orietara itzultzeko, eta ez dut oraingoz

luzatu nai zure kizkikeri orieri erantzuten. Baizik ere, bat dut eziñ-utzia, Olabideri ikasien artean kalte aundia egin lezaio-kena. Grekotik artzen idaztune ua, ez da ala Olabide'k irakurri zuna. Ikus Vogels (Düsseldorf, 1920, Io. 8, 39). Ba-dakigu aldakuntza aumitz ba-dirala irakur-bidean, nork nongo iardun eiotik edo *texto*-tik artu. Vogels'enak onela diño: "ei... ête... epoiêite an". Oso bestera da, dakusazunez. *Ei êste* ere ba-dakar Vogels'ek, baiñan oinean, oarkizun edo iritzi iantzigarrietan; ez iardun eioan, eta *an* gabe. Ikusazu zurean, eta batere irizpidean iantzia baldin ba'da, nai ta nai ez eman bear du *ête* eta *an*, oiñean edo iritziaren osagarri.

Beraz, Olabide'ren itzulpena matematikua da, berak egiz egin oi zûn lakoa. Baizik ere, *ba*-peitu zaiola aren ioka-itzari. Makar orri zuk ez diozu auteman. "Abraham'en seme ba'ziñate (ba'ziñaten=*ei ête*), Abraham'ek zekionari ba'zenekiate". Euskerazko *ba*-onek ere zenbait aldiz griegoazko *an* balio du, geienez *-ke*'rekin berdin baldin ba'da ere (1).

Iskerazale gain-gaiñeko bati.—Nor zaitugu, "Mi Atalaya montañera"ko *eminente filólogo* ori? Zuk ere sartu diozu zeure zitzakoa Olabide'ri. Ez duzu lenbizikoa, nik uste dudana baldin ba'zira.

Alper-alperrik ari zitate. Iragan ogeita sei urte auetan, zuek eta ni baiño geiago irakurri du Olabide erri ikasiak, eta urrengo berrogei ta amarretan areago irakurriko. Erri ikasiari gaizki iduritu zaio Olabide'ren aurka asi nai luken eleta ori. Bai eta Euskalzaindiaren erabakia, *sendi* ta beste asko itzetaz. Marru bizkorra atera du erri orrek, eta oraingoa ikasiko duzute erria zer dan.

Gauzak diran bezala dira, ta ez bear luketen bezala. Gu idazleok gora-bêra, erri ikasia bere bidetik ioanen da. Gaitzerdi. Beste zenbait erritan, *periodistak* eta *novelistak* dira izkuntzan nagusi. Akademiak eta geiago ikasiak ez dute fitsik egitekorik. Ori okerrago da oraino.

Ni, orain arte, erdian nindagon, ustez. L. Mitxelena iaunak ezagutu du. Zenbait mordoiloikeri egotzi nai ba'ditit ere, ez da oker ibiliko. Beraz, emendik ara, eskuifetarago ioaiteko asmoetan nago. Erri ikasiak arago bultzatzen ba'nau, ara ioan beariko.

(1) Ebangelioan eta LXX'etan ez ezen, Homer, Demosten eta olako idazle iatortetan ere, *an* ori otezkoaz gaiñera, biribilago aitortzeko ere erabili oi da: *naski*: "Si voluisses sacrificium, dedissem UTIQUE", *édôka AN* (Ps. L, London-Cambridge, 1921).

"Abraham'en seme ba'ziñate, Abraham'ek egiñak ba-zenegizte (baskuenze ele-gantez); "Abraham'en semeak ba'ziñate, Abraham'en zeregiñak egiñen zenuzketec, naski" (baskuenze popular'ez). Lenengo bi *ba*-orietan, aurrenekoa baldiñezko da; bigarrena, baietz aitortzeko. Bigarren *ba* ori ez diteke kendu euskeraz; gatzelanz, bai. *Si quisiera, lo traeria*, "nai ba'nu, nekarke" motx gelditzen da euskeraz: "nai ba'nu, ba'nekarke", si quisiera, "ya" lo traeria, euskal-erderaz. Uts au arki diteke, Olabide'renean ez ezen, euskaldun zâr baten edo besterenean. Garbi ageri da bi *ba* auek bixiko dirala.

Aita Patxi Etxeberria'ri.—Itun Zâr eta Berri oriek ez dira argitara, ez zuk, ez guk, ezago Olabide zanak gogo zuken bezala. Ez da zure erruz; zuk agindua, burua makur, egin berrra ukan duzu. Pozik artuko zenun gu bi O'en laguntza, Lazkau'n adierazi zenidana, eta zuk atera-ala guri kopia bat emango ote zitzaigun ere; baiñan ezer ez. Itun Zârrak, beintzat, etzûn orrela irteterik merezi.

Dakizunez, Oiartzabal'dar Martin iauna ioaiten zizaion noizik bein Toulouse'ra, eta ni ere eraman nindun berekin azkeneko bi txangoetan, gure oarkizunak egiteko. Egun batzutan an egonez guk idaroki genition aldakizun aiek idatzirik gelditu ziran gure eskuz, eta Itun Berrian ez-bezala, eskubide eman zigun oar aien ariora guzia berritzeko, atzekoz aurrera, Makabeu'tatik eta Genesi'raino. Oarkizun aiek galdu egin omen zirala. Mingarri da. Azkenarago ta geiago erortzen zan gure aldera.

Jesusitek Biblia ori argitara nai zutela entzunik, eta zu zindekartela Txina'tik lan ortarako, Erroma'ra io gendun, gure laguntza eskeiñiz, liburu ori bear bezala argitara zedin. A. Leturia zanak au crantzun zigun, esan nizun bezala: "A. Azkona'rekin egon naiz, eta arrazoizko ta bidezko derizkio zuek lan ori egitea." Bitartean *Castilla Occidental*'eko nagusi iaunak, zerizkiona egin zun, guri iara eman gabe. Iakin dezatela gaiñekoek zuk ez duzula errurik; asi baitira esaten nik ateratako kopiak dauzkatanak, Dabid'en Eresiak ez ezen, gaiñerakoak ere ukiturik daudela.

Zor zaio Euskalerruari, berak atera baitzûn sutatik Gernika'n eskuzkoa, eta zor zaio benazko irizketa edo kritikari, eskuzko ori beintzat, dagon bezala agertaraztea. Gure *nota* aiek egitan galdu baldin ba'dira, eta eskuzko ori ikusteko eskatzea geiegi baldin ba'da, asmoa dut poliki poliki, nere kopia batetik eta argitara danetik, alde aldera Olabide'k nai zuken bezala antolatzeke.

Itun Berria.—1924'garren urtean Itun Berria bukaturik zedukan, eta eskuetan ipiñi zidan: "Emaidazu zure iritzia; zurea gero!" Onela erantzun nion: "Mateu oinbestean, Mark obekixeago, Luka obekixeago, Ion obekixeago, eta Apokalipsi seda bezala." "Ah!, esan zidan, berri berritik egin bear dut." —"Ez, gizona: ikusi dezala geroak nolari ziñan aurreratzen." Baiña bai berriro guzia itzuli ta irauli ere.

Ni ordu artan ez ninzan pekatzen alako gizonari osteria egiten, batez ere, esana baitzedukan ene lagun bati: "Ormaetxea'k Gramatika ikasi dezanean..." Gero, bai, Itun Zârrean, eta azken aldera areago, bi O'eri "tira, tira", esaten zigun, zerbait zuzengarri aurrean ipinten genionean, "emazute orrela".

BAI OLABIDE. Ua lako gizonak bear genituke gizaldi bakoitzean bi, euskerari bultzaldia emateko. Fisika ere ba'zedukan euskeraz egia, berak mutikoeri irakatsi zien gaia. Luis Eleizalde zanari eman

omen zion, A.'k berak neri esana, eta Bizkai'ko Aldundegian okerta omen zan.

Nonbait agertuko ba'liza!

ORIXE.

* * *

Oar gisa.—Orixe'ren itzei buruz auxe esan digu Mitxelena'k:

“Eztut beñere esan nai izan, ezta pentsatu ere, A. Olabide'k grekoz idatziak, pasarte orretan naiz beste edozeinetan, etzituela bear bezala ulertu. Enaiz gauza itxillu orietan sartzeko, are gutxiago Biblia-gaietan.

“Nolanai ere, Ormaetxea jaunak eskatzen didan begiralditxoa egin diot textuari. Esku artean, A. Bover'ek argitaratu zuen Testamentu Berria (Madril'en, 1943) baizik eztut. Or ikusten dudanez, argitaratzaillerik geienak, Vogels izan ezik, *éste*-ren alde daude; beste auzian (*poieite an ala poieite* soillik), iritziak bereziago omen dabilta.

“Natorren, bada, nerera. Itzulpen orri akats bat arkitzen diot bakarrik, baiña txit akats larria. Leen aldiz ikusi nuenean, ezin nizaiokean igerri ifñondik ere zer esan nai zuen. Bestela esan, nere gisako euskaldun batek *ezin uler dezake*. Beste zenbaiti ere galdetu izan diet bat-batean ea itzuliko zidaten. Eta jende ikasi-xamarra izan arren (idazle, euskal-irakasle eta orietakoak), etzen iñor esaera orren mamiari antzemateko gauza izan. Badakigu, noski, zergatik: *ekin* ezte-lako sekula orrela erabilli euskeraz. Euskaldunek ezin uler dezaketzen itzulpena ezin, beraz, itzulpen egokia izan.”

* * *

“*Nereak egin du*” *eta.*—Mitxelena'k esku zekenez eman omen zizkion goresmenak, zenbaiten ustez, A. Olabide'ren itzulpenari. Alaz guztiz, badira ark goratu zuen zerbait begi onez ikusten eztutenak ere. Ona zer idatzi digun eliz-gizon batek:

“Ba-dakit esaera au (*nereak egin du*) oso errikoia dala; baiña erriaren ezpainenetan esaldi onek daukan adiera, eta Ebanjelioko textu arek adierazten duena, oso ezberdianak diralakoan nago. Gure Eskriturako irakasle luzaro izana, beintzat, sutu egiten da itzulpen ori ikusita, eta eztu konprenditzen nola goratu liteken. Olabide, erri-euskeran erdi-aztamuka zebillen-ta, bearbada erri-esaldi orren nondik norakoa ondo neurtu gabe edo, artu ta sartu zuan bere liburuan, baiña eztet uste jatorrizko textuaren ordaiña danik, ezta urrik ere.”

Auxe irakur diteke beste batengandik artu dugun eskutitz batean:

“Gauza batean aatik ez naiz Mitxelena'ren iritzikoa. Ontzat eta

are edertzat ematen du arako itzulpen ura: *Nereak egin du* (= *Consummatum est*). Bai ote? Ori euskera ona danik ez-tut ukatzen; baiña grekoaren zentzua ori ote da? Edozein erderatik euskerara zerbait itzultzean, ez-paita aski euskera nai bezain ederra egitea; bearrena da erderaren esan-naia euskerara zeatz aldatzea. Bestela egia aterako da esankizun aipatu ura: *Traduttore, traditore*. Arau ortara, euskerazko *nereak egin du* orrek eta grekerazko *tetélestai* arek zentzu bera ote dute? Ez-tut uste. Beste izkuntzatan ere badira euskerazko esaera orren antzekoak: lat. *actum est de me*, fr. *c'en est fait de moi*, alem. *es ist aus mit mir*, ital. *è finita. è fatta per me*. Baiña esaera guzti oiek, euskerazkoa barne, ez al dute alako etsimen-kutsu zerbait, alako etsimen-soiñu bat, erderaz: *¡Se acabó! ¡No hay ya nada que hacer! ¡Todo está perdido para mí!*, edo olatsuko zerbait? Eta gure Jaunak, iltzeko zegoela, etzuen noski ori esan nai. Esegeta katolikoek beintzat beste zentzu bat ezartzen diote Kristo'ren itz orri. Eta beren izkuntzetara itzultzen dutenean, ez-tute aixtion aipatu ditudan esaera oietatik bat ere erabiltzen: fr. *tout est consommé* (D. Rops), *tout est achevé* (Bibl. Jérusalem), ital. *è compiuto, tutto è compiuto*, alem. *es ist vollbracht*, ingl. *it is achieved* (Knox), eusk. *Gucia complitu da* (Leiz.), *oro eginik daude* (Leon), etc. Arako Duvoisin'en *akhabo da* pasagarriago deritzat *nereak egin du* baiño: or ezta beintzat *nere-rik* edo *mi-rik* ageri orain bezala. Nik ez-tut erabilli ezta erabilliko ere esaera ori, Jesus'en azken itz ura itzultzeko edo artaz predikatzeko: alako blasfemia-kutsu bat arkitzen diot."

Are geiago, beste batetik:

"Arrazoi andia du Mitxelena'k *izortu* itzaz dion ortan: itz ori ezta Olabide'k dakarren bezela, luzexegoa da. Amaika aldiz entzun ta esan dugu itz ori umetan (zer genion jakin gabe), baiña beti Olabide'k kendu dion *a*-rekin. Itz orren zentzua ere ezta Olabide'k eman nai diona (= *adúltera*): *adúltera* ta *encinta* ez-tira berdin, ezta urbiltzeko ere. Bestela, Leizarraga'k, bera higanota izan arren, etzion Andre Mariari arako itsuskeria ezarriko: "Igan cedin Ioseph-ere Galileatic... Maria emaztetan eman içan çayonarequin, cein beitzén içorra". Nonbait Leizarraga'ren denboran itz ori etzan orain bezala itsusi. Gauza bera gertatu zaio erderazko *preñada* itzari ere: lenago kupida andirik gabe erabiltzen zuten emakuméz ere; orain ez luke iñork esango. Euskal-idazle bakoitzak itzen zentzua bere gogara alda badezake, beltzari zuri ta zuriari beltz, urari ardo ta ardoari ur baderizkio, nork ulertuko du gero euskera ori?"

* * *

Beste argitasun bat gei dakioke gure adiskideak *izorra-z* dionari. Amazazpigarren mendean ere, kupidarik gabe darabil itz ori Oihenart katolikoak: aingeruaren aotan ipintzen du ain zuzen ere, Andre Mariarekin ari delarik:

Zure bizitze zuhurrak
Zeru-lurrak
Derakarzke bakera,
Ezi Iainkoaz zar'izorra,
Hark nigorra
Hunen zuri erraitera.

